

## GALDERARIK OHIKOENAK BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN SARTU ETA BERTARA IGOTZEKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAN SARTZEKO 2020KO HAUTAPEN PROZEDUREN GAINEAN

### Edukia

<b>ARAUDIA</b> .....	<b>4</b>
1.- Zein da Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lehiaketa-oposizioaren prozedurari aplikatu beharreko araudia? Eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoari? * BERRIA (2021/17/01) .....	4
<b>PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA</b> .....	<b>4</b>
2.- Programazio didaktikoan derrigorrezkoa da hezkuntza ez-presentziala aipatzea? * BERRIA (2021/17/01) .....	4
3.- Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako espezialitateen kasuan, zein ikasturteri egin behar dio erreferentzia programazio didaktikoak? * BERRIA (2021/17/01) .....	4
<b>BALORAZIO IRIZPIDEEN ARGIBIDEAK</b> .....	<b>5</b>
4.- Argibideak, abenduaren 26ko 8/2019 Ebazpenaren VI. eranskinean (Oposizioaldiko probak baloratzeko irizpideak) eta VIII. eranskinean (Programazio didaktikoaren eta unitate didaktikoaren zehaztapenak) agertzen diren terminoetako batzuei buruz. BERRIA (2021/17/01).....	5
<b>PROZEDURARAKO ONARPENA</b> .....	<b>5</b>
Zer urrats egin behar dira eskabideak aurkezteko epea bukaturik?.....	5
Prozedurara onartua izan ondotik, nola jakinen dut noiz hasiko diren jarduketak? .....	6
<b>SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURA</b> .....	<b>6</b>
Zein dira hautapen prozeduraren faseak? .....	6
Zein dira oposizioaldiko probak?.....	7
Noiz hasiko da oposizioaldia?.....	7
Zein hizkuntzatan egin behar dira oposizioaldiko probak?.....	7
Zein dira oposizioaldiko proba praktikoaren ezaugarriak? .....	7
Zer araudik arautzen ditu oposizioko gai-zerrendak?.....	7
Gaien zerrendan, ulertu behar da LOGSEri buruz dauden aipamen guztiak Hezkuntzari buruz indarrean dagoen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoari buruzkoak direla? (lege hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen) .....	8
Zein dira programazioak eta unitate didaktikoak jaso behar dituzten edukiak?.....	8
Programazio didaktikoak, zein formatu eta luzera izan behar ditu? .....	8

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO I. ATALA: IRAKASLE LANETAN IZANDAKO ESPERIENTZIA.....9**

Nola justifikatuko dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarendako egindako zerbitzuak? .....	9
Nola justifikatuko dira beste hezkuntza administrazio batzuetako egindako zerbitzuak? .....	9
Nola justifikatuko dira ikastetxe publikoek bestelako ikastetxeetan egindako zerbitzuak? .....	9
Nola justifikatuko dira Espainiako zein atzerriko unibertsitateetan egindako zerbitzuak? .....	9
Nola justifikatuko dira atzerrian egindako zerbitzuak? .....	9

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.1 ATALA: IKASKETA-ESPEDIENTEA.....10**

Eskatzen den titularen ikasketa-espeditentean ez bada batez beteko nota agertzen, espedientea baloratuko da? .....	10
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.3 ATALA: UNIBERTSITATEKO BESTE TITULAZIO BATZUK.10**

Gradu tituluak baloratzen dira? .....	10
Titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak baloratuko dira? .....	10

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.1 ATALA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA .....10**

Zein prestakuntza ikastaro baloratzen dira? .....	10
Zein puntuazio dagokie? .....	11
Zer agiri aurkeztu behar dira prestakuntza ikastaroak justifikatzeko? .....	11
Ziurtagirian orduak adierazi ordez, kredituak adierazi badira, zein da 10 orduren baliokidetasuna kreditutan? .....	11
Baloratuko dira ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak? .....	11
Baloratuko dira prestakuntza ikastaroak edo jarduerak, haien deialdiaren egileak direnean Hezkuntzakoak ez diren Administrazioak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak, etengabeko prestakuntzarako itunak sinatuak dituztenak? .....	11

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.3.2 ATALA: HIZKUNTZEN TITULAZIOAK.....11**

Zein hizkuntza baloratuko dira baremoko azpiatal honetan? .....	11
Zein ziurtagiri baloratuko dira? .....	11
Zein ziurtagiri ez dira baloratuko azpiatal honetan? .....	12

## **ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDAK .....12**

Hautapen prozedura bukatutakoan, aldi baterako kontrataziorako zerrenda berriak eratuko dira? ...	12
Zein da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatzeko araudia? (2020/01/28) .....	12
Ekainaren 7ko 51/2018 Foru Aginduaren 6. artikularen inguruko azalpena: lanposturik gabeko izangai gaudituen zerrendetan eta aldi baterako kontratazioetarako zerrenda orokorrean mantentzea. (2020/02/07) .....	13

## **DEIALDIAREN EBAZPENA ETA HAREN BARNEAN SARTZEN DIREN PROZEDURAK.....13**

Zer ebazpenen bidez onetsi dira hautapen prozedurak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartu eta bertara igotzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko, eta Lanbide Heziketako Irakasle	
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--

Teknikoen Kidegoan sartu eta espezialitate berriak eskuratzeko, Nafarroako Foru Komunitateko	
Administrazioaren kudeaketa esparruko lanpostuetarako? .....	13
Noiz argitaratu da ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean? .....	14
Zein dira parte hartu ahal izateko hiru prozedurak?.....	14
Nork har dezake parte txanda irekiko prozeduran?.....	14
Nork har dezake parte desgaitasuna dutenendako erreserba txandan?.....	14
Nork har dezake parte Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduran?.....	14
Nork har dezake parte espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran? .....	15

**HAUTAPEN PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKAERA ETA BALDINTZEN ETA MEREZIMENDUEN FROGAGIRIAK AURKEZTEA ..... 15**

Zein da hautapen prozeduretan parte hartzeko eskaera eta baldintzen eta merezimenduen frogagiriak aurkezteko epea? .....	15
Zein egunetan bete behar dira onartuak izateko baldintzak? .....	15
Zein merezimendu baloratuko dira lehiaketaldiko merezimenduen baremoan? .....	15
Zer da kopia elektronikoko bat deialdi honi dagokionez? .....	15
Kopia elektronikoko kautoturik aurkeztu behar da? .....	15
Parte hartzeko eskaera Erregistro Orokorraren bidez tramitatzen ahal dut? .....	15
Zer dokumentu mota eranstean ahal dut eskaera telematikoa? .....	16
Zer gertatuko da dokumentazio gehiago sartu nahi badut edo aurretik aurkeztutakoa aldatu nahi badut? .....	16
Deialdian badira zenbait espezialitate desgaitasuna dutenendako lanpostuen erreserbarik ez dutenak, hauexek: Filosofia euskaraz, Ostalaritza eta Turismoa, Nekazaritzako Ekoizpeneko Prozesuak eta Nekazaritzako ekoizpeneko Ekipamenduak. Nola tramitatu behar dute beren eskabidea ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek? .....	16

**AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEAK ..... 16**

Eskaerarekin batera, eskatu nahi den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainagiri bat aurkeztu behar da?.....	16
Zer gertatzen da ordainagiria aurkeztu ez bada?.....	16
Nola ordaindu behar dira azterketa egiteko eskubideak (Nafarroako Foru Komunitatean zein Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo)? .....	17
Zein dira ordainagirian ezinbestez agertu behar diren datuak? .....	17
Zer gertatzen da azterketa eskubideen ordainagirian ez bada izangaia identifikatzea ahalbidetzen duen daturik? .....	17
Nor daude tasak ordaintzetik salbuetsita?.....	17
Zein da lanbide arteko gutxieneko soldata? .....	18

## ARAUDIA

### **1.- Zein da Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lehiaketa-oposizioaren prozedurari aplikatu beharreko araudia? Eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoari? \* BERRIA (2021/01/17)**

Bi ebazpenetan aipatzen da zein den hautaketa-prozedurei aplikatu beharreko araudia. Bietan aipatzen da 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. Bi deialdiak argitaratu zirenean, LOEren bertsio kontsolidatua zen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) egindako aldatetari zegokiona. Hala ere, araudi hori aldatu egin du abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, LOMLOE izenaz ezagutzen denak.

Nahiz eta bi deialdiak argitaratzeko unean aplikatu beharreko araudia zen maiatzaren 3ko 2/2006 LOEren abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatutako bertsioa, onartuko da hala nahi duten izangaiek abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak eguneratutako araudia aipa dezaten, horrek puntuazioa kendu edo gehitu gabe. +

## PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

### **2.- Programazio didaktikoan derrigorrezkoa da hezkuntza ez-presentziala aipatzea? \* BERRIA (2021/01/17)**

Hautaketa-prozedura arautzen duten ebazpenetan ezartzen dira oposizioko probak baloratzeko irizpideak, programazio didaktikoek bete beharrekoak barne. Beraz, izangai bakoitzak erabakiko du egoki iruditzen zaizkion egokitzapenak eginen dituen, bai programazio didaktikoan, bai proben gainerako zatietan, bere irizpidearen arabera.

### **3.- Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako espezialitateen kasuan, zein ikasturteri egin behar dio erreferentzia programazio didaktikoak? \* BERRIA (2021/01/17)**

Onartuko dira bai ebazpena argitaratu zen ikasturteari buruzko erreferentziak, hau da, probak 2020ko ekainean egin balira bezala, bai hurrengo ikasturteari buruzko erreferentziak.

## BALORAZIO IRIZPIDEEN ARGIBIDEAK

**4.- Argibideak, abenduaren 26ko 8/2019 Ebazpenaren VI. eranskinean (Oposizioaldiko probak baloratzeko irizpideak) eta VIII. eranskinean (Programazio didaktikoaren eta unitate didaktikoaren zehaztapenak) agertzen diren terminoetako batzuei buruz. BERRIA (2021/01/17)**

a) VI. eranskina. Bigarren proba (salbu eta Hezkuntza Orientazioa).

A zatia. Programazio didaktikoa aurkeztea eta defendatzea. Eduki teknikoa:

Programazio didaktikoa: Helburuak lortzea (Bigarren Hezkuntzako programazioen kasuan).

Helburuak lortzeak, kasu horretan, esan nahi du programazio didaktikoak oinarri duen etaparen helburuak lortzea. Etaparen helburuak dira etapa horren curriculumara erregulatzen duen araudian aipatzen direnak.

B zatia. Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea. Helburuak, edukiak eta metodologia (DBHko edo Batxilergoko unitate didaktikoaren kasuan).

Ikaskuntzaren helburuak.

Ikaskuntzaren helburuak dira oposiziogileak unitate didaktiko horretan berariaz lortu nahi dituen ikaskuntzaren helburuak.

b) VIII. eranskina. B) Unitate didaktikoa. "Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateen alderdiak (Hezkuntza Orientazioa eta Berariazko Lanbide Heziketakoak izan ezik)".

Unitate didaktikoa koherentziaz lantzeko, oposiziogileak unitate didaktikoan lortu nahi dituen ikaskuntza-helburuekin batera, adierazi beharko dira aipatutako ikaskuntza-helburuak lortu direla justifikatzeko beharrezkoak diren ebaluazio-irizpideak eta ikaskuntza-estandarrak.

## PROZEDURARAKO ONARPENA

**Zer urrats egin behar dira eskabideak aurkezteko epea bukaturik?**

Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak jarraian adierazten diren zerrendak onesteko ebazpena argitaratuko du [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, deialdiaren fitxan:

- Prozedura bakoitzeko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak, kidego, espezialitate eta hizkuntzaren arabera. Zerrenda horietan parte-hartzaileen izen-deiturak eta bakoitzaren prozedurak azalduko dira, bai eta, baztertuz gero, horren arrazoiak ere.
- Hala badagokio, gaztelania maila neurtzeko proba egin behar duten izangaien behin-behineko zerrenda.

Behin-behineko zerrendak onesten dituen ebazpena argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Izangaiek hamar egun baliouduneko epea izanen dute, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko eta, kasua bada, baztertua edo ez onartua izateko akatsa zuzentzeko. Era berean, beren datu pertsonalak ematean akatsak izan direla ohartu diren izangaiek epe horretan berean adierazten ahalko dute. Erreklamazioak modu telematikoan aurkeztu beharko dira, Interneteko [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus) helbidean, deialdiaren fitxatik abiatuta.

### **Prozedurara onartua izan ondotik, nola jakinen dut noiz hasiko diren jarduketak?**

Ebazpena emanen da zerrenda hauek onesteko:

- Prozedura bakoitzeko onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak, kidego, espezialitate eta hizkuntzaren arabera.
- Hala badagokio, gaztelania maila neurtzeko proba egin behar duten izangaien behin betiko zerrenda.

Ebazpen horretan, orobat, gaztelaniaren ezagutza proba egiteko eguna eta tokia finkatuko dira, egokia bada.

Ebazpen hori [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean argitaratuko da, deialdiaren fitxan.

Behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpena argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Espezialitate eta hizkuntza batean izena emateak eta onartua izateak ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen espezialitate eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketak ondorio hori baldin badakar, salbu eta espezialitate bera baldin bada baina beste hizkuntza batean.

## **SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURA**

### **Zein dira hautapen prozeduraren faseak?**

Hautapen prozesuak bi aldi izanen ditu: batetik, lehiaketaldia, non izangaien merezimenduak baloratuko baitira deialdiaren I. eranskinean ageri den merezimendu

baremoaren arabera; eta bestetik, oposizioaldia, non kasuan kasuko irakaskuntza espezialitateko berariazko ezaupideak, gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko behar diren tekniken ezagutza kontuan hartuko baitira Halaber, praktikaldi bat egin beharko da, hautapen prozeduraren parte izanen dena.

### **Zein dira oposizioaldiko probak?**

Oposizioaldiak bi proba izanen ditu, biak ala biak baztergarriak. Horietako bakoitzak bi zati izanen ditu:

Lehenbiziko probak zati hauek izanen ditu

- A zatia: proba praktikoa bat, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.1 atalean xedatutakoari jarraikiz.
- B zatia: idatzizko ariketa bat, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.1 atalean ezarritakoari jarraikiz.

Bigarren probak zati hauek izanen ditu:

- A zatia: programazio didaktikoa bat aurkeztea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.2 atalean xedatutakoari jarraikiz.
- B zatia: unitate didaktikoa bat prestatzea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.2 atalean xedatutakoari jarraikiz.

### **Noiz hasiko da oposizioaldia?**

Oposizioaldia 2020ko maiatzaren 10etik aitzina hasiko da, aurkezpen ekitaldi baten bidez.

### **Zein hizkuntzatan egin behar dira oposizioaldiko probak?**

Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legean xedatutakoarekin bat, espezialitatea zein hizkuntzatan emanen den edo zein hizkuntza espezialitate den, hautapena guztiak hizkuntza horretan egingen dira.

### **Zein dira oposizioaldiko proba praktikoen ezaugarriak?**

Informazio hori deialdi VII. eranskinean jasota dago.

### **Zer araudik arautzen ditu oposizioko gai-zerrendak?**

Gai-zerrendak arautzen dituen araudia deialdiaren V. eranskinean jasota dago.

**Gaien zerrendan, ulertu behar da LOGSEri buruz dauden aipamen guztiak Hezkuntzari buruz indarrean dagoen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoari buruzkoak direla? (lege hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen)**

Bai, ulertu behar da deialdia argitaratu den unean Hezkuntzari buruz indarrean dagoen Lege Organikoari buruzkoak direla, lege organiko horrek izan dituen aldaketa guztiak aintzat hartuta.

**Aurkezten ahal naiz lehen probako bigarren ariketara, lehenbizikora aurkeztu ez banaiz ere?**

Ez; izan ere, deialdiko zazpigarren oinarriak, 1.2. puntuan hau adierazten du: "Izangaiei dei bakarra eginen zaie epaimahaien aurreko jarduketak egiteko, eta agertzen ez direnak hautapen prozesutik kanpo geldituko dira". Beraz, ariketa batera ez agertzeak hautapen prozesutik kanpo gelditzea dakar. Izangai bat ez bada aurkezten oposizioan deitutako lehenbiziko ariketara (eskuarki, lehen probako B zatia), ezin da aurkeztu lehen probako bigarren ariketara.

**Zein dira programazioak eta unitate didaktikoak jaso behar dituzten edukiak?**

Informazio hori deialdiaren VIII. eta IX. eranskinetan jasota dago, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat. Izan ere, errege dekretu horrek onesten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sartu, bertara igo eta espezialitate berriak lortzeko erregelamendua.

**Programazio didaktikoak, zein formatu eta luzera izan behar ditu?**

Programazio didaktikoak gehienez ere 50 folio izanen ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 folio horien barnean.

Zehaztapen horiek VIII. eranskinean ikus daitezke.



## MEREZIMENDUEN BAREMOKO I. ATALA: IRAKASLE LANETAN IZANDAKO ESPERIENTZIA

### **Nola justifikatuko dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarendako egindako zerbitzuak?**

Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko ditu izangai guztiek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan egindako zerbitzuak. Hartara, ez da beharrezkoa inolako agiririk eskatzea edo aurkeztea.

### **Nola justifikatuko dira beste hezkuntza administrazio batzuek egindako zerbitzuak?**

Zerbitzuei buruz hezkuntza administrazio horiek egindako ziurtagiriaren bidez. Kasu guztietan adierazi behar da zein kidegotarako izendatu zen, edo haren kode ofiziala, baita zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ere. Ez dira onartuko jabetza hartzeko eta zerbitzuak uzteko orriak.

### **Nola justifikatuko dira ikastetxe publikoek bestelako ikastetxeetan egindako zerbitzuak?**

Ikastetxearen ziurtagiria edo hura emateko eskumena duen organoarena beharko da, lurraldearen arabera ikastetxe horretan eskumena duen hezkuntza administrazioari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ontzat emana. Bertan espezialitatea, hezkuntza maila eta zerbitzuen benetako iraupena agertu behar dira, hasi eta bukatu zireneko data zehatzak adierazita Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak lan bizitzari buruzko txosten eguneratua eta kontratuak aurkez ditzatela eskatuko die interesdunei.

### **Nola justifikatuko dira Espainiako zein atzerriko unibertsitateetan egindako zerbitzuak?**

Unibertsitatearen ziurtagiria beharko da, honako hauek adieraziko dituenak: zerbitzuak noiz hasi eta bukatu ziren, data zehatzak adierazirik, eta zerbitzu horiek irakasle gisa izan zirela.

### **Nola justifikatuko dira atzerrian egindako zerbitzuak?**

Dagokion herrialdeko Hezkuntza Ministerioak edo Espainiar Estatuak Atzerrian duen Administrazio Orokorrek egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Bertan honako hauek adierazi beharko dira: irakatsi den hezkuntza maila eta ikasgaia, zerbitzuen iraupena eta horiek hasi eta bukatu zireneko data zehatzak. Ziurtagiri horiek gaztelaniazko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek.

## MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.1 ATALA: IKASKETA-ESPEDIENTEA

### **Eskatzen den tituluaren ikasketa-espeditentean ez bada batez beteko nota agertzen, espeditentea baloratuko da?**

Aurkeztutako ikasketa-espeditentea soilik baloratuko da batez besteko nota agertzen bada. Horregatik, beren ikasketa-espeditentetan batez besteko nota ez duten izangaiek hura kalkulatzeko eskatu beharko diote dagokion unibertsitateari.

Eskaerak aurkezteko epean batez besteko nota ez duten ikasketa-espeditenteak aurkeztu badira, haiek zuzentzeko eskatuko da merezimenduen behin-behineko balorazioak argitaratzen direnean.

## MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.3 ATALA: UNIBERTSITATEKO BESTE TITULAZIO BATZUK

### **Gratu tituluak baloratzen dira?**

Bai. Unibertsitateko gradu titulu ofizialaren kopia elektronikoa aurkezteak balioko du, bakar-bakarrik, bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa aitortzeko, salbu eta behar den ikasketa-ziurtagiria aurkezten bada, unibertsitateko gradu titulu ofiziala lortzeko kreditu guztiak egin eta gainditu direla egiaztatzen duena; kasu horretan, 2.3.1 azpiatalari (lehen zikloko titulazioak) dagokion puntuazioa ere emanen zaio.

Hori hala izanik ere, gradu titulua ez da baloratuko baldin eta titulu hori lortu bada ikasketa-arlo bereko unibertsitateko titulu bat (diplomatura edo lizentzia) daukatenez bideratutako egokitzapen ikastaro bat eginez. Titulu berari dagokion aipamenak ez dira gradutzat hartuko.

### **Titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak baloratuko dira?**

Ez, ez baitira titulu desberdintzat hartzen.

## MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.1 ATALA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

### **Zein prestakuntza ikastaro baloratzen dira?**

Soilik etengabeko prestakuntza eta hobekuntza ikastaro gaindituak, loturik egonez gero eskuratu nahi den espezialitatearekin, eskolaren antolaketarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzako soziologiarekin, eta antolatu badituzte hezkuntza eskumen osoa duten administrazio publikoek edo unibertsitateek; edo hezkuntza administrazioekin elkarlanean ari diren entitateek antolatutako jarduerak badira eta etengabeko prestakuntza planean sartuak, edo kasuan kasuko hezkuntza administrazioak onartuak.

### **Zein puntuazio dagokie?**

0,020 puntu, 10 prestakuntza ordutik. Ondorio horietarako, prestakuntza jarduera guztietako orduen batuketa egingen da, eta ez da puntuaziorik emanen 10 ordutik beheitiko hondarrarengatik.

### **Zer agiri aurkeztu behar dira prestakuntza ikastaroak justifikatzeko?**

Ikastaroen ziurtagiria, kasuan kasuko erakunde edo zentroak egina, non ikastaroaren kreditu edo orduak espresuki adieraziko baitira. Etengabeko prestakuntzaren planeko jardueretan edo hezkuntza administrazioak onartu dituenetan ziurtagirian espresuki adierazi beharko da kasuan kasuko jarduera plan horretan sartuta dagoela edo hezkuntza administrazioak onartua dela; bestela, hori gabe, homologazioa edo onarpena erantsi beharko da.

### **Ziurtagirian orduak adierazi ordez, kredituak adierazi badira, zein da 10 orduren baliokidetasuna kreditutan?**

Ulertuko da kreditu bat 10 ordu direla.

### **Baloratuko dira ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak?**

Ez.

### **Baloratuko dira prestakuntza ikastaroak edo jarduerak, haien deialdiaren egileak direnean Hezkuntzakoak ez diren Administrazioak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak, etengabeko prestakuntzarako itunak sinatuak dituztenak?**

Ez, jarduera sartua ez bada Hezkuntzako Administrazioek sustaturiko prestakuntza plan batean edo haien onarpena ez badu; batean nahiz bestean erantsi beharko da Hezkuntzako Administrazioak egindako homologazioa edo aitortza.

### **Irakasle gisa emandako ikastaroak baloratuko dira?**

Ez.

## **MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.3.2 ATALA: HIZKUNTZEN TITULAZIOAK**

### **Zein hizkuntza baloratuko dira baremoko azpiatal honetan?**

Soilik euskara, ingelesa, frantsesa edo alemana baloratuko dira.

### **Zein ziurtagiri baloratuko dira?**

Euskararen, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren B2, C1 edo C2 maila egiaztatzen duten ziurtagiriak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabekoak

(hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduan ezarri direnetako bat, hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 10eko 30/2018 Foru Aginduaren bidez aldatua).

Euskaraz eman beharreko lanpostuetara lehiatuz gero, ez da euskara titulurik baloratuko. Ez dira baloratuko ez unibertsitateko titulazioak, ez Hizkuntzen Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiriak, izan ere, horien balorazioa berariaz jasota dago 2.3 eta 2.4 ataletan.

### **Zein ziurtagiri ez dira baloratuko azpialal honetan?**

Ez dira inolaz ere baloratuko ez unibertsitateko titulazioak, ez Hizkuntzen Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiriak, izan ere, horien balorazioa berariaz jasota dago merezimendu baremoaren 2.3 eta 2.4 ataletan, hurrenez hurren.

## **ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDAK**

### **Hautapen prozedura bukatutakoan, aldi baterako kontrataziorako zerrenda berriak eratuko dira?**

Bai. Oposizio-lehiaketa amaitu ondoren sortuko diren aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak foru agindu batek arautuko ditu gai guztietan; hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasleen lanpostuak aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen foru agindu indardunak arautuko ditu.

### **Zein da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatzeko araudia? (2020/01/28)**

Hezkuntzako kontseilariaren 51/2018 Foru Aginduak, ekainaren 7koak, arautzen du gai hau, foru agindu horren bidez onetsi baitziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

- Dagokien kidego, espezialitate eta hizkuntzako **oposizioaldira aurkezten diren izangaiak** honako zerrenda hauetako batean sartuko dira:
  - Gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda (Foru Aginduaren 4. artikulua).
  - A zerrenda orokorra (5 A artikulua).
- **Hautapen prozedurako oposizioaldira aurkezten EZ diren izangaiak, honako zerrenda hauetako batean sartzen ahal dira:**

- Gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda edo A zerrenda orokorra (Foru Aginduaren 6. artikulua): zerrenda hauetan jarraituko dute –dagokien kidego, espezialitate edo hizkuntzan– gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrendakoek edo A) zerrenda orokorrekoek, hau da, 2018ko oposiziotik datozen zerrendetakoek.
- C zerrenda orokorra (5 C artikulua), baldin eta 2019-2020 ikasturtean zerbitzuak eman badituzte, gutxienez ere kontratu batekin, dagokien kidego, espezialitate edo hizkuntzan.

Baldin eta onesten bada aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda kudeatzen duen Foru Agindua (aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidean dago), B zerrenda orokorrean sartuko dira oposizioaldira kidego, espezialitate edo hizkuntza batean aurkeztu eta beste espezialitate nahiz hizkuntza batzuetako zerrendetan dauden izangaiak (hau da, lanposturik gabeko izangai gaindituen zerrendetakoak nahiz orokorretakoak), edozein izanda ere zerrenda horiek eratu ziren eguna.

**Ekainaren 7ko 51/2018 Foru Aginduaren 6. artikulua inguruko azalpena: lanposturik gabeko izangai gaindituen zerrendetan eta aldi baterako kontratazioetarako zerrenda orokorrean mantentzea. (2020/02/07)**

Honako hau dio Foru Aginduak: “Hori horrela, kontrakoa berariaz eskatu ezean, Administrazioak, ofizioz, azkeneko hiru deialdietatik edozeinetan lortutako notarik altuena mantenduko die pertsona horiei”. Deialdiaren notarik altuentzat jotzen da oposizio-lehiaketaren ondoriozkoa, eta ez dira inola ere batuko deialdi ezberdinetako oposizioko eta lehiaketako notak.

**Lehen probako lehenbiziko ariketara bakarrik aurkezten banaiz, badut eskubidea zerrenda orokorrean sartzeko?**

Izangai bat deitutako lehenbiziko ariketara aurkezten bada eta ez bigarrenera, eta lehenbiziko ariketan puntuazio positiboa lortzen badu, kontrataziorako zerrenda orokorrean sartuko da.

**DEIALDIAREN EBAZPENA ETA HAREN BARNEAN SARTZEN DIREN  
PROZEDURAK**

**Zer ebazpenen bidez onetsi dira hautapen prozedurak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartu eta bertara igotzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko, eta Lanbide**

## **Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan sartu eta espezialitate berriak eskuratzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko lanpostuetarako?**

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak abenduaren 26an eman 8/2019 Ebazpenaren bidez.

### **Noiz argitaratu da ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean?**

2020ko urtarrilaren 15ean argitaratu da, asteazkenarekin.

### **Zein dira parte hartu ahal izateko hiru prozedurak?**

Hona hemen parte hartu ahal izateko prozedurak:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegorako sarbide libreko prozedura, erreserba txanda izan dezakeena desgaitasuna duten pertsonendako.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozedura.
- Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.

### **Nork har dezake parte txanda irekiko prozeduran?**

Kasu bakoitzean deialdiko I. tituluko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza berariazkoek gain, baldintza orokorrak betetzen dituzten guztiek.

Betebehar guztiak eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean bete beharko dira, otsailaren 4an, beraz, eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte betetzen jarraitu.

### **Nork har dezake parte desgaitasuna dutenendako erreserba txandan?**

Deialdian sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzeaz gain, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten izangaiek, betiere irakasle lanerako oro har eskatzen den gaitasun funtzionala badute, eta kidegorako eta lortu nahi den espezialitaterako behar dena ere bai.

### **Nork har dezake parte Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduran?**

Baldintza orokorrak betetzeaz gain, funtzio publikoaren gainean indarra duen legeriak aipatzen duen B multzoan sailkaturiko irakasle funtzionarioek, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora sartzeko eskatzen diren titulazioen jabe izanik, beren jatorrizko kidegoetan gelditu badira, eskaerak aurkezteko epea akitzean, gutxienez ere sei urtez karrerako funtzionario gisa.

Igotzeko prozeduran parte hartzen duten izangaiek ezin izanen dira sarrera libreko prozeduran lehiatu kidego, espezialitate eta hizkuntza berean.

### **Nork har dezake parte espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran?**

Zein kidegotakoa den eskuratu nahi duen espezialitatea, kidego bereko karrerako funtzionarioek, Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko destinoa dutenek. Eszedentzian dauden funtzionarioen kasuan eta, orobat, kanpoko lanpostuei atxikita edo antzeko egoeraren batean daudenen kasuan, ulertuko da destinoaren inguruko betebeharrak azkeneko ikastetxeari dagokiola. Eskuratu nahi den espezialitatea zein den, bertan txanda irekian sartzeko eskatzen diren baldintzak ere bete behar dira.

Irakasle funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu baldin eta behin betiko destinoa beste hezkuntza administrazio batzuetan badute eta Foru Komunitatean zerbitzu eginkizunetan edo antzeko egoeran badaude.

## **HAUTAPEN PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKAERA ETA BALDINTZEN ETA MEREZIMENDUEN FROGAGIRIAK AURKEZTEA**

### **Zein da hautapen prozeduretan parte hartzeko eskaera eta baldintzen eta merezimenduen frogagiriak aurkezteko epea?**

20 egun natural, deialdian NAOn argitaratu eta biharamunetik hasita: urtarrilaren 16a, osteguna, lehen eguna izanik, eta otsailaren 4a, asteartea, azkena. Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 4an akituko da, asteartearekin, 23:59an.

### **Zein egunetan bete behar dira onartuak izateko baldintzak?**

2020ko otsailaren 4an. Data hori arrunt garrantzitsua da, geroagoko titulazio edo ziurtagiriak ez baitute baliorik izanen baldintzak egiaztatzeko.

### **Zein merezimendu baloratuko dira lehiaketaldiko merezimenduen baremoan?**

Betebeharrekin gertatzen den gisa berean, 2020ko otsailaren 4rako lortu diren merezimenduak baizik ez dira baloratuko, betiere izangaiak eskabideak aurkezteko epearen barnean aurkeztu baditu.

### **Zer da kopia elektronikoa bat deialdi honi dagokionez?**

Dokumentu bat eskaneatzearen emaitza da. Ez da nahitaezkoa dokumentua konpultsaturik aurkeztea, ezta kopia elektronikoa kautoturik ere.

### **Kopia elektronikoa kautoturik aurkeztu behar da?**

Ez. Ez da nahitaezkoa. Ez da beharrezkoa kopia elektronikoa kautotuak izatea betebeharrak edo merezimenduak justifikatzeko aurkezten den dokumentazioa.

### **Parte hartzeko eskaera Erregistro Orokorraren bidez tramitatzen ahal dut?**

Ez. Aplikazio berariazkoen bidez baizik ez da tramitatzen ahal:  
Kidegoetan sartzeko eta igotzeko

Espezialitate berriak eskuratzeko

[http://www.navarra.es/home\\_es/ServiciosEmpleado/ficha/16853/Procedimiento-para-que-el-personal-funcionario-de-carrera-del-cuerpo-de-Profesores-de-Ensenanza-Secundaria-y-Profesores-Tecnicos-de-Formacion-Profesional-puedan-adquirir-nuevas-especialidades-en-el-mismo-cuerpo](http://www.navarra.es/home_es/ServiciosEmpleado/ficha/16853/Procedimiento-para-que-el-personal-funcionario-de-carrera-del-cuerpo-de-Profesores-de-Ensenanza-Secundaria-y-Profesores-Tecnicos-de-Formacion-Profesional-puedan-adquirir-nuevas-especialidades-en-el-mismo-cuerpo)

#### **Zer dokumentu mota eranstean ahal dut eskaera telematikoan?**

Ondoko luzapen hauek onartzen dira: pdf, odt, doc, docx, jpg, jpeg, tiff. Ez da fitxategi konprimaturik eranstean ahal.

#### **Zer gertatuko da dokumentazio gehiago sartu nahi badut edo aurretik aurkeztutakoa aldatu nahi badut?**

Aplikazioa aurrekoa deuseztatuko du eta baztertu egingen dira lehendik aurkeztutako datu eta dokumentuak. Parte hartzeko, lagun bakoitzeko eskabide bat hartuko da kontuan, eta aurkeztutako azken eskabidea izanen da baliozkoa.

#### **Deialdian badira zenbait espezialitate desgaitasuna dutenendako lanpostuen erreserbarik ez dutenak, hauexek: Filosofia euskaraz, Ostalaritza eta Turismoa, Nekazaritzako Ekoizpeneko Prozesuak eta Nekazaritzako ekoizpeneko Ekipamenduak. Nola tramitatu behar dute beren eskabidea ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek?**

Eskabidea desgaitasuna dutenendako erreserba txandaren bidez tramitatu behar da; administrazioak ofizioz aldatuko du txanda irekira, eskaturiko egokitzapenak kontuan harturik aldatu ere.

## **AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEAK**

#### **Eskaerarekin batera, eskatu nahi den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainagiri bat aurkeztu behar da?**

Bai. 40 euro ordaindu behar dira eskatzen den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, eta ordainketa-gutun bakoitzean adierazi behar dira espezialitatea eta hizkuntza.

#### **Zer gertatzen da ordainagiria aurkezten ez bada?**

Ordainagiria aurkeztu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.



### **Nola ordaindu behar dira azterketa egiteko eskubideak (Nafarroako Foru Komunitatean zein Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo)?**

Azterketa egiteko eskubideak nahitaez ordainduko dira edozein banketxetan sartu beharreko ordainketa-gutunaren bidez. Ordainketa-gutunaren eredia Hezkuntza Departamentuaren web-orrian egonen da: [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es). Izangaiek Interneteko webgune horretan sartu eta ordainketa-gutuna bete beharko dute beren datuekin, eta "kontzeptuaren azalpen" gisa adieraziko dute zer kidegotan, zer espezialitatean eta zer hizkuntzatan parte hartu nahi duten. Gero, ordainketa gutuna inprimatu eta ordainketa eginen dute edozein banketxetan. Ordainketa telematika bidez ere egin daiteke, eta ordainagiria deskargatu.

Bi kasuetan, hautapen prozeduretan onartua izan ahal izateko, izangaiak azterketa eskubideen ordainagiria(k) erantsi beharko di(zki)o eskaerari, alegia, ordainagiri bat kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.

### **Zein dira ordainagirian ezinbestez agertu behar diren datuak?**

Izangaiaren "izen-deiturak" eta zein "espezialitate eta hizkuntzatan" parte hartzen duen.

### **Zer gertatzen da azterketa eskubideen ordainagirian ez bada izangaia identifikatzea ahalbidetzen duen daturik?**

Izangaia bazterturik geldituko da.

### **Nor daude tasak ordaintzetik salbuetsita?**

a) %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiak. Tasen ordainketatik salbuetsi ahal izateko, beharrezkoa izanen da desgaitasun gradua egiaztatzeko organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztea.

b) 2020ko urtarrilaren 15a baino hilabete bat lehenagotik gutxienez lan-eskatzaile gisa inskribaturik dauden pertsonak. Salbuetsiak izateko baldintza izanen da epe horretan eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako arrazoiren bat izan ezean, eta, halaber, hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatatik goragoko errentarik ez izatea.

Lan-eskatzailea dela frogatzeko, behar den enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin eskaini zaion inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Interesdunaren aitorenaren bidez frogatuko da ez duela hilabeteko lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik.

### **Zein da lanbide arteko gutxieneko soldata?**

2019rako 900 eurotan finkatu zen lanbide arteko gutxieneko soldata. Erran nahi baita urteko gutxieneko soldata 12.600 € direla, 14 pagatan. Eguneko LGSa, beraz, 30 euro dira.